

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aintzane Ezenarro Egurbide Aralar taldeko bozeramaileak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, hurrengo **INTERPELAZIOA** egiten dio **Patxi Lopez lehendakariari**, “maiatzaren 27ko osoko bilkuran aurkeztu zuen krisi ekonomikoak eragindako ondorioei aurre egiteko planaren inguruan”.

ZIOA

Joan zen maiatzaren 27an egindako osoko bilkuran krisi ekonomikoak eragindako ondorioei aurre egiteko plana aurkeztu zuen lehendakariak. Aurrezki neurri sorta aurkeztu zuen, baina ez zen argitzen, ez bere interbentzioan ezta ondorengo debatean ere, neurri horiek aplikatuz aurreztuko dena nora bideratuko den. Zehazki ez zuen argitu neurri horien aplikaziotik aurreztuko den horretatik zenbat zuzenduko duen defizita murriztera eta zenbat bestelako helburuetara. Ildo beretik, ez zuen argitu neurri horiek berriki Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako zorraren aurreikuspena aldatzen duten, ala ez.

Gaur da eguna oraindik Kontzertu Ekonomikoaren Bitariko Batzordea bildu ez dena eta, beraz, zehazteko dago EAEk zenbaten murriztu beharko duen bere defizita. Egoera horrek ezin du zehatz gabetasun horretan jarraitu eta ezinbesteko deritzogu lehenbailehen argitzea.

Han esandako hainbat gauza zehazte aldera, hurrengo interpelazioa egiten dio:

INTERPELAZIOA

Azal dezala zehaztasunez Espainiako gobernuak aurreikusitako defizitaren murrizketak zenbateraino eragingo duen gure erkidegoan eta, zehazki, Eusko Jaurlaritzak zenbaten murriztuko duen 2010erako aurreikusitako defizita.

Gasteizen, 2010eko ekainaren 8an

Aintzane Ezenarro Egurbide
Aralar taldeko bozeramailea